

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

2025eko deialdi publikoa: mugikortasun urria duten pertsonen taxi garraibide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak. 2025eko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2025eko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki du laguntza deialdi hau onestea eta argitaratzea. Hona hemen berau arautuko duten

OINARRIAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. 2025eko ekitaldian mugikortasun urria duten pertsonen taxi garraibide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak emateko deialdi publikoa irekitzen da; deialdia arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 28ko 55/2017 Foru Dekretuak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 29ko 47/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatua) onetsi zituen.

1.2. Laguntza honen xedea da helburu dituen pertsonen bizi kalitatea eta gizarteratzea hobetzea, bai eta mugikortasun urria eta bizitza sozial autonomoa garatzeko gaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala erraztea ere, taxi zerbitzua garraibide alternatibo gisa erabiltzearen gastuak guztiz edo partzialki konpentsatuko dituzten dirulaguntzak ematearen bidez.

Bigarrena. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira 2025eko ekainaren 1etik 2026ko maiatzaren azken egun balioduneko 12:00ak arte egindakoak, hau da, maiatzaren 29ra artekoak, Arabako taxi zerbitzua garraibide gisa erabiltzeak eragindakoak.

Hirugarrena. Onuradunak. Baldintza orokorrak eta bereziak

3.1. Dirulaguntzaren onuraduna izango da funts publikoak eskuratzen dituen; dirulaguntza eskuratzeko behar den legezko egoeran egon behar da.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten adin txikikoentzako laguntzen onuradunak honako hauek izango dira: aita, ama edo eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide adin txikikoaren ardura duten pertsonak, baldin eta berarekin bizi badira.

3.2. Laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonen Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak 12. artikulua 2. apartatuan ezartzen dituen baldintzak bete behar dituzte, eta horiez gainera honako hauek ere bai:

3.2.1. Baldintza orokorrak.

a) Gutxienez 12 urte eduki behar dituzte.

b) Eskaera aurkeztu aurretik gutxienez urtebetean jarraian errolatuta egotea Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean. Edo, adineko, desgaitu, mendeko eta genero indarkeriaren biktimen gizarteratze eta gizarte arretaren arloko Trebiñuko enklabe esparru akordioa garatzen duen lankidetzaren jasotakoaren arabera, Trebiñuko enklabe udalerrietako batean errolatuta egotea, eskaera egin aurretik, gutxienez urtebetean jarraian.

c) Ezin dira egon ezgaituta osasun egoerarengatik ez beste ezergatik ohiko etxebizitzatik kanpora joateko.

3.2.2. Baldintza espezifikoak.

a) Gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna edo mendekotasuna aitortua izatea.

b) Berariazko baremoaren arabera, mugikortasun mugaren bat aitortuta izatea, eta muga horretan honako hauek lortu izana:

– 9 puntu, gutxienez, garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasunak zehazteko baremoan, desgaitasuna 1971/1999 Errege Dekretuan edo aurreko arauetan jasotako arauen arabera aitortu bazen.

– Gutxienez ehuneko 45 mugikortasun mugapenaren baremoan, baldin eta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan jasotako arauen arabera aitortu bazen desgaitasuna (888/2022 Errege Dekretua, desgaitasun gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena).

c) Adimen desgaitasuna, gaixotasun mentala edo afekzio/narriadura kognitiboa izanez gero, bizitza sozial autonomoa garatu ahal izatea.

– 1971/1999 Errege Dekretuan edo aurreko arauetan ezarritakoa aplikatuz, baldintza hori betetzeko, desgaitasunaren eta mendekotasun egoeraren balorazioetan dagoen informazioa hartuko da kontuan. Eta inola ere ez da izango desgaitasun psikikoaren maila ehuneko 60 edo handiagoa; eta ehuneko 50 edo handiagoa bada, mendekotasuna baloratzeko baremoan honako item hauetako batean punturik duen baloratuko da:

- “Etiket kanpoko arrisku egoerak eragotzi”
- “Etiket kanpoko joan-etorriak planifikatu”

– Baldintza hori betetzeko, desgaitasunaren eta mendekotasun egoeraren balorazioetan dagoen informazioa hartuko da kontuan, desgaitasun gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuz. Kontuan hartuko da item hauetan duten autonomia: beren denbora eta eguneroko jarduerak, etxebizitzatik kanpo egiten diren joan-etorriak, arriskuak aurreikustea eta saihestea, espazio eta denbora orientazioa, edo garrantzitsuak izan daitezkeen beste batzuk.

Laugarrena. Emakida araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztenen artean, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

5.1. Araudi honen xede diren laguntzak emateko prozedura onuradun izan nahi duenak eskaera aurkezten duenean hasiko da. Eskaera deialdi honen II. eranskineko erudian formalizatu behar da.

5.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko urriaren 31n bukatuko da.

5.3. Eskaerari honako agiriak erantsiko zaizkio:

a) Nortasun agiri nazionalaren edo atzerriarraren identifikazio agiriaren fotokopia.

b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko eta/edo transmititzeko baimena emateko agiria (012 eredua), familia unitateko kide guztiek sinatuta (kideak nortzuk diren deialdi honen zazpigarren oinarrian zehaztu da).

c) Nola laguntza 800,00 eurotik beherakoa den, onuradunak ez dauka egiaztatu beharrik egunean dituela bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen denaren arabera.

5.4. Adineko, desgaitu, mendeko eta genero indarkeriaren biktimen gizarteratze eta gizarte arretaren arloko Trebiñuko enklabeako esparru akordioa garatzeko Burgosko Diputazioarekin izenpetutako lankidetzaz hitzarmena aplikatzearen ondorioz laguntzaren onuradun izan daitezkeen pertsonen kasuan, eskaerak dokumentu horretan ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira.

5.5. Unitate izapidetzaileak beretzat gordetzen du laguntzak ondo kudeatzeko behar diren agiri osagarri guztiak eskatzeko eskubidea.

Seigarrena. Laguntzaren zenbatekoa zehaztea

6.1. Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak, hain zuzen ere 400.000,00 euro, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2025eko aurrekontuko 81201. G/231811/48000828 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" partidaren kontura ordainduko dira.

6.2. Laguntzak emateko eskumena duen organoak uneko deialdirako onetsitako zenbatekoaren, gehienez, ehuneko 40ko zuzkidura gehigarria onetsi ahal izango du.

6.3. Laguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, eskaera (behar bezala beteta) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako erregistroetatik edozeinetan sartu den dataren eta orduaren arabera lehentasun ordenari jarraituta.

Eskaerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistro orokorrean.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozein.

6.4. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa hilean 55,00 eurokoa izango da, 12 hilabeteko gehieneko aldirako, 2025eko ekainetik 2026ko maiatzera arte.

6.5. Gehieneko zenbateko hori onuradunaren familia errentaren arabera haztatuko da, I. eranskineko taulan jasotako ehunekoak aplikatuta, eta hilabete osoetan emango da, ebazpena eman eta hurrengo hilabetetik aurrera, salbu eta 2025eko ekainaren 1a baino lehen hartutako ebazpenek, 12 hilabeteko gehieneko aldiari dagokion zenbatekoa emango baitute.

6.6. Gutxienezko laguntza 20,00 eurokoa izango da.

Zazpigarrena. Familia unitatea

7.1. Araudi honetan ezartzen denaren ondorioetarako, hauexek dira familia unitateak:

a) Laguntzaren onuraduna adin nagusikoa denean, familia unitateko kideztat hauek hartuko dira:

- Laguntzaren onuraduna.
- Bere ezkontidea, legez bananduta ez badago, edo izatezko bikoteko beste kidea.
- Adin txikiko seme-alabak, adoptatuak eta familia harreran daudenak barne. Ez dira unitateko kideztat joko gurasoekin bizi ez diren adin txikiko seme-alabak.
- Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adin nagusikoak, baldin eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren indarreko araudiaren arabera, onuradunaren aitortzearen kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen badute eta errenta indibidualaren aitortzearen egin ez badute.
- Gurasoak, baldin eta onuradunak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren indarreko araudiaren arabera, aitortzearen ondorengo ahaideen kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen badie eta errenta indibidualaren aitortzearen egin ez badute.
- Adin txikiko anai-arrebak, onuraduna bere gurasoekin bizi bada edo haiek ekonomikoki onuradunaren mende badaude. Ez dira familia unitateko kideztat joko gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren adin txikiko seme-alabak.

b) Onuraduna adin txikikoa bada:

– Laguntzaren onuraduna.

– Aurreko ahaideak, baldin eta haien errenta aitorpenean onuradunak ondorengo ahaideen kenkarirako eskubidea sor badezake.

– Adin txikiko anai-arrebak. Ez dira familia unitateko kideztat joko gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren adin txikiko seme-alabak.

– Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adin nagusiko anai-arrebak, baldin eta gurasoei edo onuradunaren zaintza eta jagoletza duenari pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badiote indarreko araudiaren arabera eta errenta indibidualaren aitortpena egin ez badute.

7.2. Lehenengo eranskinean jasotzen diren diruzko sarrerren mugak ezartzearen ondorioetarako, familia unitate batean onuradunaz gain ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen beste pertsona bat bizi bada, kide bat gehiago dutela ulertuko da.

Zortzigarrena. Errentak edo diru sarrerak eta ondarea zenbatzea

8.1. Onuraduna izateko eta, beraz, laguntza jasotzeko edo, bestela, kontzeptu honengatik onartu beharreko ehunekoa finkatzeko, deialdiaren I. eranskinean ezartzen diren muga ekonomikoak hartuko dira kontuan.

8.2. Familia unitatearen errenta edo sarrera konputagarriak urtean zehar kideen lanak eta kapitalak sortzen dituzten etekinak eta eskubideak izango dira, eta jasotzen dituzten gainerako guztiak ere bai.

Etekinak eta eskubideak baloratzeko, erreferentziatzat hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu duten pertsonen kasuan, honako kontzeptu hauen batura hartuko da diru sarreratzat: lanaren etekin osoak, kapital higiezinaren etekin osoak, kapital higigarriaren etekinen zenbateko osoa, ondare irabazi garbiak, jarduera profesional, enpresarial, nekazaritza eta abeltzaintzako etekin garbia eta egotzitako lan errenta salbuetsi guztiak. 2023ko ekitaldian aitortutako datuak hartuko dira kontuan.

Baliaezintasun handiagatik edo antzeko kontzeptu batengatik pentsioa jasotzen bada, hirugarren pertsona bati laguntzeko ehuneko 50eko osagarria ez da kontuan hartuko familia unitatearen sarrerren guztirako zenbatekoan.

8.3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako aitortpenik aurkeztu ez duten pertsonen kasuan, horretara behartuta ez daudelako, artikuluko honetako 2. paragrafoan zehaztutako kontzeptuei egotzitako diru sarrerak zenbatuko dira.

8.4. Ohiko etxebizitza gorabehera, benetako etekinik sortzen ez duen ondasun higiezin baten jabe direnei haren katastro balioaren ehuneko 3 egotziko zaie bidezko zenbatekoan.

Aurreko ataletan aipatu ez diren ondasunen eta eskubideen etekinak edo etekinik sor dezaketanak ere egotziko dira.

Bederatzigarrena. Ordaintzeko modua eta erabiltzeko aldia

9.1. Onuradunei honela ordainduko zaie garraiorako laguntza: aurreordainketako txartel izenduna emango zaie eta bertan kargatuko da laguntzaren zenbatekoa, taxi zerbitzuan gastatu ahal izateko, garraio bide alternatibo modura.

9.2. Txartela pertsonala eta eskualdaezina izango da; onuradunaren izen-abizenak edukiko ditu. Hainbat ekitalditan erabili ahal izango da. Txartelek, ordainketa egiteko, aukeran dauden hiru teknologiak dauzkate: banda magnetikoa, EMV txipa (Europay MasterCard VISA) eta Contactless; horrez gain, kode bat ere badaukate, mugatzen dituena taxi garraiorako soilik erabiltzeko.

9.3. Onuradunak Arabako Lurralde Historikoko taxi zerbitzua erabili ahala gastatuko du laguntzaren zenbatekoa, txartelaz ordainduz gero.

9.4. Emandako zenbatekoa taxi zerbitzua ordaintzeko erabili ahal izango da txartela entregatzen denetik, edo birkargatzen denetik, txartela izanez gero, 2026ko maiatzaren azken egun balioduneko, hau da, maiatzaren 29ko, 12:00ak arte.

9.5. Txartela galtzen edo narriatzen bada edo norbaitek lapurtzen badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko zaio, eta honek ahalik azkarren emango dio ordezkoa onuradunari, baina ez ditu ordainduko onuradunak bien bitartean taxi zerbitzua erabiltzeagatik egiten dituen gastuak.

Hamargarrena. Gastuen eta ordainketen justifikazioa

10.1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar diren egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, eta berak nahi duen bezala, emandako dirulaguntzak zertan eta nola erabili diren argitzeke.

10.2. 11/2016 Foru Arauak 35. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, datu faltsuak ematen badira edo datuak ezkututzen badira, dirulaguntza ebazpenean ezarritako xederako gabe beste baterako erabiltzen bada edo onuradunak kontrol jarduketak onartzen ez baditu edo eragozten baditu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du edo, dagoeneko ordainduta badago, itzuli egin beharko du eta berarekin batera berandutze interesak ordaindu beharko ditu. Bidegabe ordaindutako zenbatekoa onuradunak ez badu itzultzen edo ordainketan berandutzen bada, premiamendu bidez eskatu ahal izango zaio.

Hamaikagarrena. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

11.1. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek (Estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten xede bererako beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

11.2. Ematen den banako dirulaguntza baten zenbatekoa ezin da izan, bera bakarrik zein Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak taxi zerbitzuan egiten duen gastua baino gehiago.

Hamabigarrena. Eskaeren instrukzioa eta ebazpena

12.1. Desgaituen Arloko Idazkaritza Teknikoko Zuzendariordeak dauka prozeduraren izapideak egiteko eskumena, eta zuzendaritza horrek helaraziko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari behar bezala arrazoitutako ebazpen proposamena, hark baitu eskumena hura ebazteko.

Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, organo izapidetzaileak ofizioz egin behar ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b) Ebazpen proposamena egitea.

12.2. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, deialdi honen babesean izapidetutako espedienteak ebazteko organoa Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gerentzia Zuzendaritza izango da.

12.3. Laguntza eskaerak ebazten dituen ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

- a) Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.
- b) Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.
- c) Emakidaren aldia.

12.4. Deialdi honetan jasotako laguntzak jasotzeko ezartzen diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntzak eskuratzeko eskubidea.

12.5. Deialdi honen babespean laguntza bat emateak ez dakar, berez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jardueretarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

Hamahirugarrena. Ebazteko eta jakinarazteko epeak

13.1. Garaiz eta forma egokian aurkeztutako eskaerak, eskatutako agiri zehatz guztiak ditzutenak, gehienez era hiru hilabeteko epean ebatzi behar dira, aurkezten direnetik hasita. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badagozkie.

Eskaera ondo beteta aurkezten ez bada edo aurreko artikuluan azaltzen diren agirietako bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68.1 artikuluan ezartzen duen bezala, hamar (10) egun balioduneko aldiak akatsak zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskarian atzera egin duela ondorioztatuko dela aipatutako 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoaren arabera eman beharreko ebazpenaren ondoren.

Era berean, eskatzaileak eskaeran atzera egin ahal izango du, edo, ordenamendu juridikoak debekatzen ez badu, bere eskubideei uko egin ahal izango die, jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez, betiere aplikatu beharreko araudian jasotakoaren arabera dagozkion sinadurak sartzen baditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 94. artikuluan jasotzen den bezala.

13.2. Dirulaguntza eskaera ebazteko gehieneko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik ez badago, ulertu behar da ezetsi dela, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 24.1 a) artikuluan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorrak 25.5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

13.3. 39/2015 Legearen 40. artikulutik 46. artikulura bitartean aurreikusitakoarekin bat etorritz jakinaraziko zaio eskatzaileari laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpena.

13.4. Laguntza eskaerak ebazten dituen ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan jasoriko moduan eta epean.

Hamalagarrena. Datu pertsonalen tratamendua

14.1. Indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak tratatuko ditu deialdi honek arautzen dituen laguntza eskaerak betetzean lortu diren datu pertsonalak eta interesdunekin harremanetan jarrita sortutakoak. Datuen tratamenduaren helburua izango da laguntza eskaerak kudeatzea, interesdunekiko harremana eta komunikazioa mantentzea eta Foru Erakunde honek eskatutako edo emandako zerbitzuen prestazioa kudeatzea.

Tratamendu hori aplikatzen zaie bai interesdunaren baimenarekin lortutako datuei, bai foru erakunde honek bere eskumenen esparruan berezko dituen eginkizunak betez lortutakoei. Datuak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuak ez zaizkio estatutik kanpoko inori helaraziko. Babes bereziko datuak dira.

14.2. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubideak baliatu ahal izango dira, bai eta beste eskubide batzuk ere, web orri honetan zehazten den moduan: <https://web.araba.eus/es/servicios-sociales/proteccion-de-datos>; edo idazki bat bidaliz, eskatzailea NAN bidez identifikatu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera (San Prudentzio kalea 30, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo datuak babesteko ordezkariari posta elektronikoz bidalita, helbide honetara: dpd_ifbs@araba.eus.

Hamabosgarrena. Azken klausula

15.1. Deialdi honen oinarriak dirulaguntzen arloan indarrean dagoen foru araudiaren, autonomia erkidegoko araudiaren eta Estatuko araudiaren –zehazki, taxi zerbitzua garraio bide gisa erabiltzeko laguntzak arautzen dituen araudiaren– eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudiaren mende daude.

15.2. Deialdi honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25.1, 8.1 eta 46.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horren aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ohartarazten da aurkeztutako berraztertze errekurtsuaren esanbidezko ebazpena eman arte edo hori ustez ezetsi arte ezingo dela administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri; hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 16a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE*



I. ERANSKINA

Familiaren diru sarreraren mugak, mugikortasun urria duten pertsonen ordezkoko garraiobide gisa taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak jasotzeko gainditu ezin direnak, eta diruz lagungarria den gehieneko ehunekoa, laguntzaren bidez gehienez ere eman daitekeen zenbatekoari aplikatu beharrekoa.

Familiaren sarrera kide guztien sarreraren batura da.

	FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA	
	1 KIDE		2 KIDE		3 KIDE		4 KIDE		5 KIDE		6 KIDE EDO GEHIAGO	
	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%
Diru sarrerak, gehienez	21.544	100	32.314	100	40.391	100	46.450	100	51.098	100	56.206	100
Diru sarrerak, gehienez	22.082	95	33.121	95	41.403	95	47.613	95	52.374	95	57.611	95
Diru sarrerak, gehienez	22.634	90	33.949	90	42.438	90	48.802	90	53.684	90	59.051	90
Diru sarrerak, gehienez	23.198	85	34.797	85	43.497	85	50.022	85	55.024	85	60.527	85
Diru sarrerak, gehienez	23.778	80	35.670	80	44.585	80	51.273	80	56.402	80	62.039	80
Diru sarrerak, gehienez	24.373	75	36.559	75	45.699	75	52.553	75	57.811	75	63.591	75
Diru sarrerak, gehienez	24.982	70	37.475	70	46.841	70	53.870	70	59.255	70	65.180	70
Diru sarrerak, gehienez	25.607	65	38.411	65	48.013	65	55.214	65	60.737	65	66.810	65
Diru sarrerak, gehienez	26.246	60	39.372	60	49.214	60	56.596	60	62.255	60	68.481	60
Diru sarrerak, gehienez	26.906	55	40.354	55	50.444	55	58.010	55	63.813	55	70.190	55
Diru sarrerak, gehienez	27.578	50	41.365	50	51.706	50	59.461	50	65.407	50	71.946	50
Diru sarrerak, gehienez	28.265	45	42.400	45	52.999	45	60.947	45	67.043	45	73.745	45
Diru sarrerak, gehienez	28.972	40	43.459	40	54.321	40	62.471	40	68.718	40	75.592	40
Diru sarrerak, gehienez	29.696	35	44.544	35	55.679	35	64.032	35	70.436	35	77.481	35
Diru sarrerak, gehienez	30.438	30	45.659	30	57.072	30	65.634	30	72.196	30	79.418	30
Diru sarrerak, gehienez	31.200	25	46.800	25	58.499	25	67.274	25	74.003	25	81.401	25
Diru sarrerak, gehienez	31.981	20	47.970	20	59.961	20	68.955	20	75.852	20	83.436	20
Diru sarrerak, gehienez	32.780	15	49.169	15	61.460	15	70.681	15	77.746	15	85.524	15
Diru sarrerak, gehienez	33.599	10	50.395	10	62.996	10	72.446	10	79.691	10	87.659	10
Diru sarrerak, gehienez	34.440	5	51.656	5	64.570	5	74.257	5	81.682	5	89.853	5
Hemendik gora	34.440	0	51.656	0	64.570	0	74.257	0	81.682	0	89.853	0

Orrialdea 1/3

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p>Mugitzeko arazoak dituzten pertsonei taxia garraio bide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak</p> <p style="text-align: right; font-size: 24pt;">047</p> 
--	---

Erabiltzailearen datuakDEIALDIAREN URTEA Hurrengo hau denez: Onuraduna Legezko ordezkaria Onuradunak egoitza batean behin-betiko plazarik okupatzen du? BAI EZ Egoitza Sarrera data Onuradunak laguntzadun etxebizitza batean behin-betiko plazarik okupatzen du? BAI EZ Laguntzadun etxebizitza Sarrera data Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (jakinarazpenetarako) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa **Eskatutako dirulaguntzaren onuradunaren datuak**

(Eskatzailea eta onuraduna pertsona bera badira, ez bete)

Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (Kalea/ Plaza) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa **Laguntza honentzat ESKATZEN DU:**

RE: 22/295

Orrialdea 2/3

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU-SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA

Lan etekinak eta jarduera etekinak

Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
	€	
	€	
	€	

Pentsioak, sorospenak eta prestazioak

Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
Alargun pentsioa	€	
Erretiro pentsioa	€	
Baliaezintasun handiko pentsioa baduzu? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	€	
KGP/GOF/MGL	€	
Beste batzuk (zehaztu)	€	

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA

Balio higikorrek

Deskripzioa	Hauek ditu jabetzan	Zenbatekoa/Saldoa	Etekina	Titularra
Aurrezki libretak/ Kontu korranteak		€	€	
Bonoak, zor publikoa, letrak ...		€	€	
Inbertsio funtsak...		€	€	
Akzioak/obligazioak...		€	€	
Beste batzuk (zehaztu)		€	€	

Balio higiezinak (ohiko etxebizitza, etxeak, hiri edo landa-finkak, gozamenak...)

Mota	Deskripzioa	Katastroko balioa	Etekina	Titularra
		€	€	
		€	€	
		€	€	

Adierazten dut ez dudala beste balio higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta Espainiako beste autonomi -erkidego batzuetan ere.

Eskualdaketak, Dohaintzak

Deskripzioa	Data	Balioa	Hartzailea
		€	
		€	
		€	

Orrialdea 3/3

Aurreko ekitaldian garraio-laguntzaren onuraduna izan naiz

Bai Ez **NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKOAK:**

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.
Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenean bat datozela ziurtatzeko.
Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaioketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-egunen epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

 -(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Legezko ordezkariaren sinadura*

* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoiak

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Arduraduna	GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA San Prudentzio Kalea 30, 01005 Vitoria-Gasteiz, Araba. Tel: 945 15 10 15 Email DPD: dpd_ifbs@araba.eus
Xedea	Zuk emandako datu pertsonalak (norberarenak edo 14 urtetik beherakoenak, baldin eta haien tratamendua berariaz baimentzen baduzu zure legezko ordezkariarekin), hirugarrenen bidez lortutakoak (beste pertsona/erakunde publiko edo pribatu batzuk) eta zurekin lotzen gaituen harremanean sortutako beste edozein, GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK tratatuko ditu, Arabako Lurralde Historikoko herritarren gizarte-ongizatea eragin, sustatu eta hobetzeko (GOFE eskuduna den eremuan) Pertsona eta kolektibo kalteberei informazioa, arreta eta laguntza emanez, laguntza behar duten egoera pertsonal, familiar edo sozialetara lagunduz, egoera baloratuz eta premia zehaztutarako baliabide, prestazio eta zerbitzu egokieneri buruzko orientazioa emanez. Zure datuak ere tratatuko dira zurekin harremana eta komunikazioa mantentzeko. Era berean, jakinarazten dizugu lortutako datuak eskatutako zerbitzu edo baliabidearekin lotutako profilak egiteko erabil daitezkeela. Tratatu beharreko datuen kategoria honako hau da: identifikazio-datuak, gizarte-inguruabarrei buruzkoak, enpleguari buruzkoak, ezaugarri pertsonalei buruzkoak, ezaugarri ekonomiko eta finantzarioei buruzkoak, kategoria bereziko datuak eta jasotako/emandako zerbitzuei buruzkoak.
Eskubideak	Bidezkoa denean, zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu edo tratatzearen aurka egin dezakezu, eta ez duzu erabaki automatizatu bakar baten xede izan behar. Horrez gain, zure gainerako eskubideak erabil ditzakezu, GOFEn webgunean, hain zuzen ere, Datu pertsonalak babesteko atalean .